



Usurbilgo Lanbide Eskolak Turkiako Enka Technical High Schooleko ordezkari talde baten bisita jaso zuen azaroaren 17an. Ordezkaritza taldea Usurbilgo Eskolak Energia Berriztagarrien irakaskuntza esparruan duen sistema aurreratu aztertzeko helburuarekin etorri zen. Haien hitzetan, oso bisita aberasgarria gertatu zen eta bertan aztertutako hainbat prozedura eta garapen sistemak bere eskolan ezartzeko prest daudela adierazi zuten.

Bestetik gogoratu nahi diegu irakurleei langile zein langabetei zuzendutako doako ikastaro anitz dituela eskolak. Horien artean berehala hasiko diren Gizarte Segurantzako Prestazioen Kalkulua, Berogailu eta Orokorrean Bero Instalakuntzen muntaia, Kobrezko tuboaren soldadura eta 3D inprimagailuen ikastaroak.

Argibideak nahi izanez gero www.lhusurbil.com edota 943364600 telefono zbkian.